



JENDETZA ELIKAGAIEN 13. AZOKA BEREZIAN

30 postu inguru izan ziren Errebote plazan; Isats Gisatuaren Lehiaketa Ibai-Ertz elkarteak irabazi zuen 5

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2008-09-14

VIURTEA 1508.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Duela 35 urte ikasle izandakoak eta ikasturte honetan bertan ikasle izango direnak. E. EZEIZA

35 URTE BERANDUAGO HERRIKO ESKOLA BERPIZTU DUTE

LARRAUL Atzo inauguratu zuten eskola, Kultur Etxeko eraikinean egongo dena; 8 ikasle ariko dira Haur Hezkuntzan eta 3 haur eskolan 6

Kontxako Banderako finaletik at geratu dira TAKeko neskak, lan txukuna egin duten arren

TOLOSA 14 minutu eta 36 segundoko marka egin zuten, baina ez zen nahikoa izan; Getaria-Zumaia, Galiza, Hondarribia eta Astillero sailkatu dira 5



Erraldoiek kolorez jantzi zituzten herriko kaleak. R. CALVO

Jai giro bikaina erraldoi, oilasko eta omenaldien harira

TOLOSA Besteak beste, Benigno Aparicio eta Joxe Mari Gorrotxategi omendu zituzten 4

AITZOL

UDAL EUSKALTEGIA

Matrikula zabalik irailaren 19 arte. Titulu homologatuak.

1. maila - 2. maila - Alfabetatzen - 3. maila (EGA) Azterketak euskaltegian bertan.

Ohiko taldeak (astean 8 ordu + tutoretza): euskaltegian, enpresetan, ikastetxeetan, lantokietan...
Autoikaskuntza: tutoretzak, mintzasaioak, bakarkako lana (BOGA + gure unitateak)...

Rondilla, 34-B 3.a
Tel. 943 651006 - 943 652343
aitzolue@tolosakoudala.net



bidali
opor
hauekako
argazkiak!

Sari
nagusia



Amorotoko
Altuena
landetxean,
bi pertsonentzako
bi gauerako
egonaldia.

2. saria



Tolosako
Beti Alai jatetxean,
bi pertsonentzako
bazkari edo afaria.

3. saria



Ibarrako
Azoka denda
eskainitako
saski berezia.

NORA BIDALI

tolosaldean@tolosaldekohitza.info

HITZA udako argazki lehiaketa

OINARRIAK: www.tolosaldekohitza.info webgunean

» **Uzturretik**

Felix Irazustabarrena

Santa Krutz eguna da gaur. Gurean, Alegian, Kalebeherako festak. Goizeko dantzari, txakolin eta piparren ondotik, bazkaria izango degu eguerdian. Paella da azken urteotako menua eta ez dago apuntatu beharrik. Azaltzen denak prestatuko du bazkarirako beharrezkoa eta mahaietan eseriko da jatera. Prestatu eta jan, antolatu eta gozatu, osatu eta eman, ... herritarren artean egiten da gure auzoko festa.

Ez dago gauza ikaragarririk, behar adina ez degu berritzen

akaso (ea hurrengorako ahalegina egiten degun) baina azken hamar egunetan prestatzeko ez da gutxi. Aste bete falta danean ez badirudi ere, urteroko zita hor agertzen da euri artean.

Nik Kalebeherako garai bateko zitak eta bertako bazkariak gogoratzen baditut kantuarengatik da, Gazte xamar hasi nintzen bertara joaten, eta orduan bazkal ondoren kantuan egiten gendun. Etengabe, batzuk oso ondo ez, nik desastre, baina kanta bata besteren atzetik joaten ziren kale erdian jarritako mahaietan. Garai haietan, eta lehenago ere pentsatzen det, ez zen otordu herrikoirik, kuadrileko afaririk ezta poteo berantiarririk ere kantuan bukatzen ez zenik.

Nola aldatzen diren gauzak, aurten ere ez det uste kantatuko

Kanta Krutz

degunik. Ahazten ari zaigu, gortzen, gogortzen edo gogoaz gortzen ari zaigu.

Euskal Herri osoan kantatzeko ohiturak galtzen ari direla irakurri berri diot, tertulia batean edo, Amaia Zubiriari. «Belaumaldi berriak kantatzeko ohitura galtzen ari dira». Josu Zabalak ere antzekoa dio bertan «Zaraten erdian galduta da kantatzeko ohitura». Ezin degula dio etxean egon telebista, irratia edo biak jarri gabe, kalean tabernetan sekulako zarata dago egunero, mp3 edo mp4 eta antzeko gailuak belarran ipinita joaten gara hara eta hona... «Kantatzeko lotsa hedatu da gazteen artean» amaitzen du Herztzainak eta Gu ta gutarrakelako musikariak.

Bidebatez bestelako arriskuak ere aipa ditzadan. Bi gazte hil dira

uda honetan trenak harrapatuta belarrietan pinganilloak zituztela trenbidea zeharkatzen zutenean. Antza ez zuten abixurik aditu.

Eztabaida horretan Amaiak kantatzen ahazten ari zaigula zioen, eta ahotsak libre sentitu behar duela eta Zabala ere libre kantatzearen aldeko azaltzen zen «Libre kantatzea terapeutikoa da. Kantuan askatzen diren sentimenduei esker psikologotik aurreratuko genuke». Osasuntsua beraz eztarria libratzea.

Oraindik udan gaude, baina laster dator udazkena, negu gorriari iritsi aurretik Negu Gorriak taldearen kantu zati bat bukatzeko «Eztarri indartsuak ezin dira ito / gure lepoan soka ez dago betiko / parre egin gogotik neska ta mutiko / kantatzen duen herri bat ez da inoiz hilko». Gora herria!

Laburrak

Guardiako farmaziak, gaur eta bihar

TOLOSALDEA-LEITZALDEA • Hauek izango dira gaur herritarrentzat guardian egongo dira farmaziak: Lekunberrin, Mendia, M.I. (Aralar kalea, 25.112); Tolosan, Ollarreaga, M. (Martin Jose Iraola, 10.943.672438). Bihar, berriz, Leitzan, Campos, M.Z. (Elbarren, 52.112); eta Tolosako Etxebeste, J.M. (Gernikako arbola, 3.943.651040).

Zinema eskaintza zabala gaur arratsalderako

TOLOSA • *Las crónicas de Namia 2* filma emango dute gaur 17:00etatik aurrera Leidor aretoan. 19:30ean, berriz, *La momia 3* filma emango dute Leidor aretoan. Gaueko saioan, 22:00etatik aurrerako, *Escondidos en Brujas* filma izango da ikusgai.

A Asteko irudia



Algarak eta malkoak ikasturte hasierarekin...

S Soka motzean

«Seme zaharrenarekin 130 euro inguru gastatzen dugu»

IZASKUN ESTANGA,
3 seme-alabaren ama

I. TERRADILLOS - N. URBIZU

Tolosa, 1967, etxeko andrea da, Hirukide ikastetxean umeak eskolatik irteko zain.

Zein adinekoak dira zuen seme-alabak?

11, 10 eta 8 urte dituzte.

Asko gastatzen al duzu kurtso hasieran, nabari al da?

Guk 3 seme dauzkagu eta dena aprobetxatzen dugu. Zaharrenarekin nabaritzen dugu.

Zenbatekoa izaten da gastua, gutxi, gorabehera?

130 euro inguru bai, zaharrenarekin (11 urte dauzka).

Zer moduz hasi dira eskolan aurten?

Urduri hasi dira, baina gustura. Txikienari kostatu zaio gehien eta zaharrena errazago hasi da.

Eta zuek, gurasoek nola hasi duzue?

Niri pena handia ematen dit. Etxeko andrea naiz eta egia esan, etxean somatzen da haien falta... Nolabaiteko tristura sentitzen dut.

Ordutegiak asko aldatu dira?

Beti 09:00etan jaikitzen dira. Baina orain azkarrago ibili behar gara, hau prestatu, bestea... Oso oliki egiten dituzte gauzak!



I. TERRADILLOS



Blusen jokoak jaien azken egunean

ZIZURKIL • Koadrilen Eguna ospatu zuten atzo Zizurkilgo jaien azken egunean. Hala eta guztiz ere, hurrek Gorritiren animaliekin eta buruhandiekin gozatzeko aukera izan zuten goizean. Herri bazkarian blusekin koadrila ezberdinak Joxe Arregi plazan elkartu ziren. Jokoen txandan, elkarren aurkako lehia eta asto lasterketa ikusteko aukera egon zen. **ASERIMAZ**

G Gutunak

AHT gelditzea posible da: langileriaren eta gaztediaren indarrarekin

Gaizkile taldeak bere ekintza burutzeko gauaren iluna aukeratzen duen moduan, uda hontan, Madrilgo eta Gasteizko gobernuak AHTren obrak zabaldu dituzte proiektuaren inposaketa atzeratzina egiteko. Horrexegatik, AHTren aurkako herri mugimendua garrantzi handiko une batean dago eta hurrengo hilabeteetan egitasmoa gelditzeko egiten duguna erabakigarria izango da.

Ekonomiari bultzada bat emateko, gobernuak zenbait azpiegitura eraikuntza lanak azkartu di-

tuzte, AHT tartean. Gobernuak AHTrekin ordea, ingurumenaren eta garraioan, besteak beste, herriarrok ditugun arazoak ez dituzte konponduko, areagotu baizik. Eta proiektuak diru publikoaren xahuketa izugarria ere suposatuko du. Arazoa kapitalismoa da: garraioaren, energiaren eta eraikuntzan arloan, eta baita hezkuntzan, osasunean, etxebizitzan, elikagaietan... hau da, herriarrok ditugun beharretatik, kapitalistek negozioa egin behar dutela. Hortaz, AHTren proiektu txikitzailea kapitalismoaren beste ondorio bat da eta AHTren aurkako borrokak, kapitalismoaren ondorioen aurkako beste borroke-

kin eta azken finean, jendartearen eraldaketaren aldeko borrokarekin lotzea da zuzenena.

AHTren aurka gero eta jende gehiago gara. Herriarregian konfiantza osoa jarri behar dugu. Langile klasearen pixua eta papeara produktioan egun inoiz izan den handiena da. Ez du telefono batek jotzen, ez da argi bat pizten ezta gurpil bat ibiltzen ere langile-riak nahi ez badu. AHTren proiektua ELA, LAB, EHNE, HIRU... sindikatuak eta herri mugimendu zabalak gaitzetsi du. Orain ekonomiaren krisiak prezioetan, enpleguan eta lan baldintzetan txarrerako eragiten ari da.

Borrokak lotzea eta zabaltzea komeni zaigu. AHTren eta krisi ekonomikoaren ondorioen inguruan langileak informatu behar dira. Beharrezkoa da lantokietan eskuorriak banatzea eta batzar informatiboak antolatzea. Mobilizazioekin baita lanuzteekin eta greba orokorrek ere, AHT gelditu eta kapitalismoa ere desegin dezakegu.

Guztiagatik, Euskal Herria Sozialistak, kapitalismoaren aurka eta sozialismoaren alde, joetake, borrokatuko du, eta jende guztiari AHTaren aurkako mobilizazioetan parte hartzeko deia egiten du. **Manu Odrizola**, Euskal Herria Sozialista aldizkariko kidea.

Ez al dugu eskubide berdina Villabonakoek?

info

BILLABONATARBAT

Izena eman dut kiroldegian, Villabonakoan. Ordaintzera joan nintzenez argi azaldu zidaten gauza bat: Hondarribiko, Zumaiaiko... kiroldegietara joan naiteke enpresa berdina delako, baina Tolosako igerilekura ezin zara sartu. Egunkari honetan irakurri nuen asuntuhoni buruz zer bait baina uste nuen konponduta egongo zela. Zer gara bigarren mailako ordaintzaileak, ala? Lotsagarri iruditzen zait...

H Hilberriak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

JOSE MARIA GUTIERREZ 'GUTI'



DONOSTIA
2008ko Irailaren 12a

Atabalaren tarrapatatan sortzen zitzaigun algara Zaparradaren tarrapatatan heldu zen ur gazitara Taupada baten tarrapatatan joan zaren arren jada Atabalaren zaparradaren taupadan biziko gara

Arkaitz Añorgako dantzariak



MARIA OSTOLAZA EGAÑA

(Jose Ramon Zabala Gaztañagaren alarguna)

Atzo hil zen, 79 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Seme-alabak: Axun eta Bittor Mutiozabal, Jose Ramon eta Gemma Camino, Josune eta Roberto Ostolaza; bilobak: Ariz eta Nerea, Inhar eta Arantzi, Irati, Urko, Usua, Alex; koinata: Pilar Arribita (Gerbasio Ostolazaren alarguna); iloba: Mertxe; lehengusak: etxegainerako alargiak.

Haren animaren alde otzito bat eskatzen dizue eta arren etor zaitzela BIHAR, ASTELEHENA, arratsaldeko ZAZPIRETAN, Santa Maria La Real parrokia elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Gipuzkoa kalea, 33 B-1 ezkerrean
Oharra: Gorputza arratsaldeko Bak arte Zarauzko Tanatorioan egingo da.



ZARAUZ
2008ko Irailaren 14a

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra



BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala Tolosa (Bellatokia)

Erraldoiak, oilaskoak eta omenaldiak nagusi

Tolosa » Giro aparta zegoen atzokoan herrian, besteak beste, Luma Gorrikoen oilaskoei eta Erraldoien Topaketei esker.

ERREDAKZIOA

Ekitaldiz betetako asteburua izan dugu Tolosan. Ostiraleko eta atzoko Bonberenea Sutan jaialdiaz gain, non ikusle asko bildu diren Bonberenea antolatutako kontzertuak ikustera, atzokoan herri giro aparta zegoen.

Goizaldean hasi ziren karrikak jendez betetzen, nahiz eta aldizka euria egiten zuen erruz. 11:00etan hasi zen gitarau oparoa Trianguloko plazan. Bertan ziren Luma Gorri elkarteak, zeintzuk Tolosa Gourmetekin batera euren 15.

urteurrena ospatu nahi izan zuten atzokoan Tolosan. Baserriko giroa gerturatu nahi izan zuten herrira eta horretarako oilaskoak ekarri zituzten. Batzuk bizirik, Trianguloerdian jarritako hesiei esker, eta besteak jateko zai, leku berean jarritako parriletan egin zituzten eta.

Luma Gorrikoek ekarritako oilaskoei esker, gainera, Kabi Alai eta Txinparta sozietateetakoek pintxoak eskaini zituzten Trianguluan. Era berean, taberna desberdinetan oilaskoekin egindako paella bazkaldu zuten. Izan ere, Luma Gorrikoek 200 oilasko erre egin zituzten eta baita Plaza Berrian ikusi ahal ziren 100 txito eta Trianguloko 215 oilaskoak ere.

Omenaldiak ere izan ziren atzokoan; batetik Eusko Labelen eskutik Peio Garcia Amiano Baserriko

Oilaskoaren Lagun egin zuten, bestetik Jose Mari Gorrotxategiri Ohorezko Makila eman zioten eta azkenik, Alde Zaharra Dendak elkarteak Aparicio denda ezagunaren jabe, Benigno Aparicio, saritu zuten.

Apariciori egindako omenaldia Udaletxeko Pleno Aretoan izan zen. Bertan Alde Zaharreko dendari gehienak zeuden eta guztiak txalotu zuten dendari adintsuak bere bizi osoan egindako lana. Dendariaren emaztea eta bere alabak ere han ziren, noski. Gogoratu behar da sari hau bigarrenkoz eman dutela aurtengoan eta saria dendari guztiak emandako bozkei esker erabakitzen dela.

Erraldoiak eta buruhandiak

Haurrek, gainera, Trianguluan jarritako oilaskoekin eta Plaza Berriko txitoekin nahikoa ez bazuten, erraldoiak eta buruhandiak ere izan zituzten kaleetan.

Erraldoiak 12:30ean ziren ateratzekoak Berdura Plazatik baina pixka bat atzeratu ziren euria zela eta. Tolosako Ekinbide Etxeak antolatutako Erraldoien Topaketan Donostiatik, Azpeitiatik, Leiztatik eta Tolosa bertatik etorritako erraldoiak atera ziren eta Alde Zaharrean barrena ibili ziren buruhandiekin batera.



Alde Zaharrean barrena ibili ziren atzokoan erraldoi eta buruhandiak. R. CALVO



Txinparta eta Kabi Alaiak pintxoak eskaini zituzten Trianguluan. R. CALVO



Luma Gorriek Tolosan ospatu zuen atzo bere 15. urteurrena. R. CALVO



Benigno Aparicio, lehen irudiko eskubitik bigarrena, eta Jose Mari Gorrotxategi omendu zituzten. R. CALVO-KLISK

TAKeko neskak ez dira gaur Kontxan izango, lan txukuna egin arren

Tolosa » Kontxako Banderako finaleko nesken txandan Getaria-Zumaia, Galiza, Hondarribia eta Astillero egongo dira.

ERREDAKZIOA

Lan txukuna egin zuten atzo Tolosaldeko Arraun Klubeko neskek. Lehen tandan atera ziren, Galiza, Astillero eta Club de Rem Colera-ekin batera, eta 14 minutu 36 segundo eta 26 ehuneneko marka egin zuten.

Ondo aritu ziren, erritmo biziarekin hasi ziren neskak, baina ez

zen nahikoa izan. Euren tandan Galiza izan zen nagusi 14 minutu 6 segundo eta 20 ehunenekoko markarekin. Ondoren Astillero sartu zen, 14 minutu 16 segundo eta 28 ehuneneko markarekin, eta Club de Rem Colera izan zen azkena, nahiko galduta ibili zena, 17 minutu 21 segundo eta 40 ehuneneko denborekin. Galiza oso txukun aritu zen nahiz eta haizeak taldeen lana oztopatzen zuen, izan ere traineruek ez zuten ur gehiegi hartu.

Bigarren tandan egin zen, hala ere, markarik onena. Getaria-Zumaia, Hondarribia, Arkote eta Club de Rem Badalonakoak aritu ziren eta Getaria-Zumaiaiko nes-



Tolosaldeko neskak ez dira gaurko finalean egongo, nahiz eta lan txukuna egin. HITZA

kek egin zuten eguneko markarik biziena, 13 minutu 42 segundo eta 12 ehunenekoarena, zehazki. Oso ondo aritu ziren gipuzkoarrak.

Tolosa eta Hondarribia artean Hondarribiak alde atera zion azkenean Tolosaldeko neskei eta bera izango da azkenean gaurko Kontxako Banderako finalean ariko dena. Horiek horrela, 129 urte eta gero gaur 11.00etatik aurrera

Donostian izango den emakumeen estropadetan bi euskal talde egongo dira; Getaria-Zumaia, Galiza, 44 segundotara, Hondarribia, 33 segundotara, eta Astillero, 44 segundotako aldearekin, izango baitira gaur. Emakumeen lehen bandera, hortaz, Euskal Herrian gera daiteke.

Aipatzekoa da atzo itsasoa bizi zegoela eta olatuek ez zutela nesken lana batere erreztu. Lerrokat-

zeko arazoak izan zituzten taldeek, salto handi xamarrek ematen zituzten eta taldeetako batzuk, Kataluniakoak, batez ere, atzera egiten zuten, ez omen daude ohituta eta baldintza hauetan lan egitera.

Club de Rem Badalona izan zen, hain zuzen, eguneko markarik txarrena egin zuena, Getaria-Zumaiko markatik lau minutu eta 36 segundotara geratu zelarik. Culera ere ez zen oso fin ibili.

Jende ugari hurbildu da Elikagaien 13. Azoka Berezira

Villabona » 30 postu inguru izan ziren Errebote plazan; Isats Gisatu Lehiaketan Ibai-Ertz elkartekoek irabazi dute.

ERREDAKZIOA

Goiz-goizetik hurbildu zen atzokoan jende ugari Errebote plazara. Bertan zain zeuden 13. Azoka Bereziko protagonistak, saltzaileak, hain zuzen ere. Guztira 30 postu inguru izan zituzten aukeran erosleek Irrintzi elkarteko antolatuturiko Elikagaien 13. Azoka Berezian.

Oro har, saltzaileak «gustura» azaldu ziren goizak eman zuenarekin eta salmenta «nahiko ona» izaten ari zela baieztatu zuten. Sabela ondo asetzeko parada ere bazen atzokoan, pintxo postuetan.

12:00etatirako Uxo-Toki, Be-

har Zana, Zumbeltz, Urkamendi, Ibai-Ertz eta Irrintzi elkarteko sukaldariak isats gisatua prestatzen hasi ziren. Epaileek guztiak dastatu eta guztietan onena Ibai-Ertz elkarteko kideek egindakoa zela ebatzi zuten. Bigarren eta hirugarren Urkamendi eta Irrintzi elkarteko izan ziren, hurrenez hurren.

Azokako postuetan, aukera handia

Gozoak, kontserbak, haragia, ez-tia, edariak, kilometroetako arropa, ... Denetarik ikusi zen postuetan. Antolatzaileek saltzaileen lana ere saritu nahi izan zuten eta postu onenei sariak banatu zizkieten. Hala, posturik onenari saria Oiaraldek eraman zuen, 180 euro eta oroigarria jaso zituelarik. Bigarren saria, Bodegar Ramirentzat izan zen, 120 euro eta oroigarriarekin

» IRABAZLEAK

Isats Gisatu Lehiaketa

- Lehen postua. Ibai-Ertz elkartea.
- Bigarren postua. Urkamendi elkartea.
- Hirugarren postua. Irrintzi elkartea.

Posturik onena

- Lehen postua. Oiaraldea
- Bigarren postua. Bodegar Ramirez.
- Hirugarren postua. Brasil gozotegia.

eta hirugarren saria Brasil gozotegia jaso du, 90 euroekin eta oroigarriarekin.

Azokari amaiera ona emateko postua jarri zuten guztiak bazkaltzera joan ziren, Irrintzi elkartekoek antolatuta.



Ibai-Ertz elkartekoek prestatutako isats gisatuak irabazi zuen lehiaketa. N.L.



Jende ugari ibili zen goiz guztian zehar Errebote plazan. N.L.



EGUZKILORE

www.eguzkilorejoya.com

DONOSTIAN Hermita 13, Alderdi Eder Tel. 943 43 15 58
GALDAKAON eta AMOREBILIAN Tel. 94 673 18 31

Larraulgo eskola inauguratu zuten atzokoan; 8 gaztetxok eman dute izena Haur Hezkuntzan eta hiru ariko dira haur eskolan; eskola Kultur Etxeko eraikinean atondu dute.

35 urte eta gero, berpiztu da eskola

ERREDAKZIOA

Luze jotzen dute 35 urte. Are luzeago herri bat eskola gabe egoteko. Horixe gertatu zaio Larrauli eta orain, ia lau hamarkada beranduago, berriz ere herriko familiek euren seme-alabak herrian bertan hezitzeko aukera izango dute.

Atzo egin zuten inaugurazio ekitaldia eta herria jai kolorez jantzi zen. Eurriak ere present egon nahi izan zuten, baina ez zuten ekitaldi hunkigarria zapuztu. Xabier Mujika alkateak hartu zuen hitza lehenik eta eskolaren behararren garrantzia goraiatu zuen, besteak beste. Halabere, Eskola Txikieta, Partzuergoko eta herri txikieta udal ordezkariak izan ziren ekitaldian, baita beste zenbait bul-tzaile ere.

Zehaztu dutenez, «Larraulgoa, Asteasuko eskolaren luzapena da, baina helburua Larraulek berezko eskola izatea izango da». Bertan haurreskola eta Haur Hezkuntza eskainiko dira eta 30 laguntzako lekua izango du Kultur Etxeko eraikinean bertan atondu duten eskolak. Aurtengo ikasturterako 8

ikasle ariko dira Haur Hezkuntzan eta 3 haur eskolan.

Duela 35 urteko ikasleei omenaldia

Liburuak aspaldi utzi zituzten baina eskola garaiko istorioak gogoan dituzte oraindik duela 35 urte Larraulen ikasi zutenek. Haiei merezitako omenaldia eskaini zieten atzokoan. Lehena eta oraina bat egin zuten, beraz. Aurtengo ikasturtean ikasle izango diren gaztetxoek euren izena jarri zuten Karlos Irazu artisau larrauldarrek eginiko eskulturari. Azaldu zutenenez «asmoa urtero-urtero ikasle guztiek euren izena bertan ipintzea izango da».

Herriari esker haziko den haritza

Ekitaldiaren baitan, herriko bi aiton-amonek haritza landatu zuten eskolaren kanpoaldean. Ondoren, banaka-banaka bertan zeudenek haritzari ura bota zioten.

Abestirako tarterik ere izan zen eta Jexuxmari Irazuk eta Aitor Atxegak eginiko kanta abestu baitzuten guztiek.



Duela 35 urte ikasle izandakoek haritza landatu zuten. ESTI EZEIZA



Irazu bertsolariak eta Aitor Atxegak egindako kantua abestu zuten ondoren. E. EZEIZA



Karlos Irazu artisauak eginiko eskulturaren euren izenak jarri zituzten ikasle txikiak. E. EZEIZA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Kamarera.** Anoetan esperientzia duen kamarera bat behar dugu. Igandeetan jai. 650 043 139.

■ **Irakaslea.** Lazkaoko ingeleseko akademiarako irakaslea behar dugu. Bidali Curriculum Vitaea hizkuntzaeskola@gmail.com helbidera.

■ **Etxeko lanak.** Emakume bat behar dugu etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko. 686 118 920.

ETXEBIZITZA

■ **Alokairua.** Etxebizitza bat hartuko nuke alokairuan Tolosan, Iba-

rran, Villabonan edo inguruetan. 635 7124 44.

SALGAI

■ **Peugeot Partner.** Peugeot Partner diesel salgai. Egoera onean. 649 510 941.

■ **Haurrentzako aulkia.** Haurrentzako paseoko aulkia salgai, oso egoera onean. 70 euro. 943 118 940.

ESKOLAK

■ **Gitarra eskolak.** Gitarrako eskolak bakarka edo taldean. 630 925 997.

NUTRIZIO AHOLKULARITZA
DIETA PERTSONALIZATUAK
OBESITATEA
NUTRIZIO BERREZIKETA
HELDUAK ETA HAURRAK

MAIJA ETXETXIPIA
BIOLOGA

KONDEKO ALDAPA, 5 B - 2ª ESKUBIA. TOLOSA. TEL. 679 934 888



» **Hitzalean**

Joxemari Iturralde
(Tolosa, 1951)

Mutil hura lehen enara etortzen den bezala azaldu zen uda hartan, eder eta bakarrik. Beno, ez dakit seguru lehen enara udan azaltzen den, edo agian udazken aldera, baina berdin dio, dakidana zera da, mutil hura herrian azaldu zenean abuztuaren hasiera zela. Malder itxura zekarren, laguntza bila etorri izan balitz bezala, baina ez zuen, hala ere, laguntzarik eskatu. Gero, laguntza eskaini egin zioten, hori bai, baina berak ez zuen eskatu, bere aldetik saiatu zen bizimodua aurrera ateratzen.

Imajina ezazu une batez gure herria irla bat dela eta halako batean naufragoa bat iristen dela. Ba, horrela iritsi zen mutil hura. Inork ez zekien zer gertatu zitzaion lehendik, inork ez zekien zergatik iritsi zen gure herria.

Abuztuan gure herria hutsik zegoen ia. Posible zen, batik bat gau partean, kalean batera eta bestera ibiltzea inor ikusi gabe, inorekin topo egin gabe. Buelta osoa eman herriari eta nekez aurkituko zenuen inor ordu haietan. Orduan hartzen nion gehien uharte itxura gure herriari. Ozeaniaren erdian galdurik dagoen irlaxo baten modura, posible zen buelta osoa egitea, naufragoa batek egingo lukeen moduan, inoren arrastorik kausitu gabe. Orduan, udako gau bakarti horietan, neu sentitzen nintzen naufragoa neure herrian, neu bai, naufragoa etorri berri hori iritsi baino lehen ere. Horregatik nire artean Asteazken hasi nintzaion deitzen, nire herrian nintzelako naufragoa bera iritsi baino lehen, batetik, eta bigarren, asteazken batean ailegatu zelako, eta ez ostiral batean Robinsonen istorioan bezala.

Iritsi eta lehen egun haietan, abuztu gorrian, bizpahiru aldiz egin nuen topo Asteazkenekin. Beno, egun haietan ez, hobe gau haietan esaten badut. Ni txakurra-ekin, Bolki-ekin, ateratzen nintzen gauero irlari, herriari esan nahi dut, buelta ematera. Eta han zumardiaren amaiera aldera, harriko eserleku luzea dagoen toki-ian, aurkitzen nuen, bakarrik, eserita, zigarroa erretzen. Haieta-ko gau batean, Bolki korrika zebilela, beti bezala, inguratu egin zitzaion eta bere oinetakoekin hasi zen jolasten. Orduan neu ere inguratu egin nintzaion.

- Kaixo.
- Gabon.
- Gau ederra.
- Bai, zoragarria.
- Ni Marta naiz eta txakurra, Bolki. Eta zu?

Udako naufragoa

- J.M. deitzen didate.
- Ia whisky baten izena daukazu —atera zitzaidan besterik gabe—. Asteazkenek ez zion erantzunik eman tontakeria horri, batere harritzekoa ez dena bestalde. Isilik geratu zen zigarroa erretzen eta txakurrari begira. Baina, halako batean, Bolki korrika abiatu zen handik beste norabait, ezin du luzaro geldirik irau txakur txatxu honek, eta nik biderei jarraitu behar izan nion mutil desolatu hari aguresan ondoren.

Naufragoa, bere irla txikian egokitu ahala, hasten dira pixka-

netik gaueko giroak aldaketa nabarmena izan zuen. Nire lagunak bertara azaltzen hasi ziren gauero, eta neuk ere gauza bera egin nuen aldika. Nire gauero ko errondan desbideratze txiki bat eginenez Bolki-ekin azaltzen hasi nintzen gau batzuetan terrazara. Koadrilako lagunak eta ezagunak baldin bazenuden terrazako mahaietan, urrutitik ikusten nituen eta orduan aurrera jarraitzen nuen bertara joan gabe. Giro lasaigoa baldin bazegon, hau da, lagun aspergarri horiek ez zueudenean mahai batean esertzen nintzen, Bolki-ekin jolas-

Kristinaren mutila eta Kristina izan da azken urte eta erdian, ofizialki, Rickoren neska (hasierako urte erdi horretan Rickok Kristina konpartitu behar izan baitzuen Juliorekin). Gero, ordea, dena joan zitzaion pikutara Rickori. J. M. bilakatu zen Kristinaren neska. Elkarrekin hasi ziren eta, horrela, Ricko geratu zen bakarrik.

Uda hartan, abuztuko azken gau sargoritsu haietan, nik beti bezala jarraitu nuen irlari bueltatxoa egiten, ohiko naufragoez egiten duten modura. Bakarrik.

Ricko, hau ere orain bakarrik,



naka eguneroko bizimoduari taxuzko itxura ematen. Sua egin behar da eta ura bilatu. Txabolatxo bat eraiki behar da eta jatekoa aurkitu. Asteazken (nirekiko ez nion inoiz J.M. deitzen) halaxe hasi zen, herriko bizimodura ahalik eta egokien moldatzen. Esan zidatenez, gelatxo bat alokatu zuen bizitzeko herriko ostatu merkeenean. Eta astebate pasa baino lehen desageratu zen zumardiko eserlekutik. Berrehala jakin nuen Zentralea tabernan hasi zela lanean, batere gustuko ez dudana leku horretan. Goizean gosariak eman ohi dituzte, eguerdian txikiteoa dabil, gero bazkariak, arratsaldean kafeak, afariak segidan eta gauean pub modura funtzionatzen du. Osogutxitan sartu izan naiz ni leku horretara, esan bezala, ez zaidalako batere gustatzen.

Baina Asteazken lanean hasi ze-

ten, Asteazken zerbitzatzera inguratzeko zitzaidan arte.

Bazirudien, bertaratu nintzen hiruzpalau gau haietan, ez ninduela ezagutzen, itxurak egiten zituen inoiz ikusi ez baninduz bezala, bezero arrotz eta ezezagun bat gehiagobainintzen.

- Kaixo, J.M.? Zer moduz bizi zara? —galdetu nion azkengau hartan—.

- Ondo —erantzun zidan tonu urrunbategi—.

Hura izan zen terraza hartara azaldu nintzen azkengaua. Binufragoen arteko talka ez zen oso ondo atera. Handik aurrera nik beti bezalaxe jarraitu nuen abuztuko gau luze eta amaigabe haietan, naufragoa batek irlari ematen dion buelta bakartia egiten, baina pub hartara joateko desbideratzea egin gabe.

Ricko izan da azken bi urtean

naufragoa berria bilakatu zen. Herria utzi eta, esan zidatenez, probintziako hiriburura alde egin zuen, bertan geratzeko asmoa. Hara iritsitakoan hutsetik hasi beharko zuen, lekua, jatekoa, giroa... bilatzen.

Ricko lehen enara etortzen den bezala azalduko zen uda hartan, eder eta bakarrik. Beno, ez dakit seguru lehen enara abuztuaren amaieran azaltzen den edo ez, baina berdin dio, dakidana zera da, naufragoa berri bat azalduko zela uharte berri batera.

Astelehen batez joan zen, seguru uharte handixegoa den hiriburur horretan norbaitek topo eginguko zuela Rickorekin, bakarrik, gauean, parkeko eserleku baten jarrita.

Seguru naufragoa berri horri norbaitek Astelehen deitzen diola dagoeneko.

Lehenengo gaztainak eta babarrun zuriak euriak bustitako azokan

Azoka » Eskaintza zabaldua izan zen, aldaketa garaia baikaude; euriak ez zituen erosleak etxean utzi.

PABLO ALBERDI

Euria izan zen nagusi atzoko azokan, eta euriarekin eskaintza. Aldaketa garaian gaude azokan, eta aldatetekin berrikuntzak etortzen dira. Aurtengo lehenengo gaztainak, eta lehenengo babarrun zuriak ere ikusi genituen azokan.

Perretxiko zerranda ordea ez zen batere aldatu. Ez genuen onddorik ikusi, eta ziza hori bakarren batzuk besterik ez genuen aurkitu mahaietan. Egun hauetako euriak eragin positiboa edukitzea espero dute postuetan eta agian datorren astean eskaintzak gora egingo du.

Berdura Plazako apaingarriko landareen postuetan ziklamenak eta azaleak nagusitu ziren, eta piskanaka gora diho zerranda.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merk.	Gares.
Ziklamena	5,50	-
Erromeroa	4,00	6,00
Xarbota	4,00	6,00
Kalendula	2,50	-
Lobelia	4,50	-
Biola	3,00	-
Salbia	1,00	1,20

» BERTAKO PRODUKTUAK

Onddoa	26,00	-
Ziza horia	18,00	-
Udarea	1,50	-
Perlestina	1,50	-
Errezil sagarra	1,00	-
Udarea	1,50	-
Perlestina	1,50	-
Pikua	4,00	-
Gaztaina	3,00	-
Baba	3,00	4,00
Babarrun zuria	8,00	-
Ibarrako piparra	4,00	7,00
Tomatea	2,00	4,00
Porruak	1,00	3,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Baina	4,00	6,00
Kalabaza	1,50	3,00

» PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Kalabaza	1,60	3,04
Dilistak	2,40	-
Azenarioa	2,00	2,50
Txitxirioak	2,40	-
Arroza	1,90	2,00
Arbi morea	4,00	-
Tipula	1,75	2,00
Zerba	2,00	-
Letxua	1,00	-
Ahuntz gazta (200gr)	3,00	-
Arraultzak	3,50	-
Mermelada	3,00	3,60



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Leitzako Zaldi Eguna 2008n euria izan zen protagonista; hala eta guztiz ere festa giroa ez zuen zapuztu. Haurrek pony-etan paseatzeko aukera izan zuten. ASIER IMAZ

Bi hankakoak bezain ausartak lauakoak

Leitza » Aurrera Perra Taldeak antolatuta atzo ospatu zen Zaldi Eguna 2008 euri eta eguzki printzen babesean.

ASIER IMAZ

Goizean euria ari zuen Inguruarte zelaian. Hala eta guztiz ere 09:00etan 30 lagun ausart Guratz mendixkatik Peruarria abiatu ziren zaldien gainean. Baina atzoko

Zaldi Eguna ikusi ostean, goikoak bezain ausartak suertatu ziren behokoak, zaldiak hain zuzen ere.

Euria eta eguzki printzak

Aurrera Perra Taldeak antolatu zuen atzo Leiztan Zaldi Eguna, Plazaola Partzuergoaren eta Udalen babesarekin. Jaia egun guztian hiru kokagunetan bititu zen: Inguruarten, herriko plazan eta Aurreran.

Euria protagonista izan bazen goizean, arratsaldean eguzki

printz garbirik egon ez bazen ere, ateri mantendu zen zerrua. Partaideez gain, herritar eta kanpotar ugari bildu zen atzo Leiztan.

Zelaian eta errekan zaldiak

Goizeangoiz mendi buelta egin ostean, zaldiak eta euren jabeak Leiztatek proban murgildu ziren Inguruarten. Zaldi trebetasun proba honen barnean, lehenik errekan barrena ibili ziren probalariak. Ondoren, zaldi gainera eskuinetik igo eta trebetasun ariketarik burutu zi-

tuzten partaideek. Haurrentzako berriz, zalgurdietan osteratxoak antolatu zituzten, baita pony gaineko paseoak ere.

Zikiroa eta musika

Eguerdian egitarauaren arabera, zaldi proba ikusteko aukera egon zen herriko plazan. Ondoren 150 lagun baino gehiagok zikiro jana egin zuten, country musikaz lagundurik.

Pello Zabalairekin hitz egin zuten ere izan zen atzokoan: «Ez diat

esanen zer errosario mota erreztu dizkiaten baina...» eguzkia desio. Umorea hitzetan eta lasaitasuna ekintzetan. Arratsaldean eguratsak hobera egin zuen heziketa proba ezberdinak ospatu ziren Inguruarten. Hauetan azpimarratzekoa Jinetada edo Nikaraguar erako heziketa.

Jaiarekin amaitzeko 23:00etan Lobo & Carmina taldearen eskutik Country kontzertua ikusteko aukera egon zen Leitzako Zaldi Eguna 2008n.

A Agurrak



Urte askoan!

Igor (Alegia). 9 urte. Zorionak eta ondo pasa denon partetik.



Urte askoan!

Maddi Lopetegi Serrano (Ordizia). Gaur 6 urte. Muxu asko aitona eta etxeko guztien partetik.



Leitzarrek trebetasun proban zaldiak Inguruarte aldamaneko errekan barrena eraman zituzten. A. IMAZ